

jayo da gizonen Efege bakafa ikusi izan dogu beraren izafa.

Izafa gelditurik señaren parian Efegeiak auzpasturik beraren aurian adoretan dabe gustuz umildadian: Ufia, ixentzua ta mifa dituez aldian.

Astrusia txafakin Erodez paltsuak engañau gura leukez Efege Santuak. Zeruaren bitartez Jesus amorosuak ondo gordeten dituz Jaun ofen pausuak.

Jesus'i agur egiñik Belen'go portalian etxera juateko asten dira bidian. Iru Efege ofek santuak zirian geu be bizi gaitezcan Kristo'ren legian.

AXADERIA

**Erigoiti.**

1654

Mayordomu Domingo de Monasterio zan. Juan de Gezuraga ta Katalinaga'k emon zituzan Santísimo'ko Batzafari zor eusatzan zazpi duketak; eta beste ogeta amasei efeal Juan de Borikak; Ignazia de Etxebafietak zortzi duket Gorpu Santueri. Bilbo'ko Juan de Batzaldeka ekafi euden efetablue ondo einde badao edo ez ikusten.

1655

Garagafilen ogeta lauen etofi zan bigafenez Kalaofa'ko Obispo zan Juan Joanis de Etxalaz, elexak ikusten, Gernika'ra. Efigoitiafak ara eroan eutsiezan liburuek eta eroan ebazanek egun biko alogera kobrau eban, bat eroaten eta beste bat ekarten. Obispoari emon yakozan zortzi duket, eta erdie abadeak eta beste erdie elexeak ordaindu ebezan. Agindu eban exkomuniñopean ez izteko iñori gabaz elexan egoten; iñuntzeko Agur Marien ostean, baita yoteko Arimena ta euren alde otoi egiten dabeneztan emon zituen befoegi eguneko parkamenak. Mayordomu zan Domingo de Bizkaigana. II zan D. Martin de Afiaga, abadea ta bere ordezi ipiñi zan D. Pedro de Agife. Bilbo'ko Antonio de Trabudua'ren etxetik ekafi zirian kasula bi 292 efeal ordainduta. Zazpi kana tafetan eta ontza bi seda irurogei efeal ordaindute, altara naysiko kortinea eiteko. Andra Mari yayetarako danbolinteru bat ekafi euden eta duket bat emon eutzien. (Oinartheñoiko urteetan ezta entzun danbalinterurik yayetarako ekafi eudenik, baten kaskabelak ekafi zituetzala, ta orduen be ekafi ebazanen lepora bota zituetzala euren gastuek, baya aituten emoten dau onek zelan len agustuko Andra Mariak zirian efiko yairik andienak). Urte onetarrate ezta entzun oleoak ordainduten zituetzanik eta aurten lau efeal ordaindu eudezan. Sekretarioari be lau efeal emon eutsien kontuek ipintea-gaiti, baya onek sekretario onek eskribauk izan bear dau izena aldatute. Baite itxi deustie marabedieri ta asi dira erlakaz kontetan. D. Juan de Busturiari emon eutsiezan amabi duket elexeak zor eutsezcan zenzooan urte biko.

**Xabier deuna.**

Emeko Eleiz Gastediko gasteak ospatu eban lengo igandean, euren Zaindaritzat daukien Xabier'ko Franzisko deunaren eguna. Afatsaldean egin euden eleizkizun eder bat, agurtza, abesti polit eta euren itundariak egin eutsien itzaldiaz.

*Gogo-iñarkunetatik.*  
Bilboko Lekaima-etxe baten gogo-iñarkunak einda, etxeratu zirian lengo igandean, emeko bederatzí neskatila.

S.

**Markina.**

*Eleizkizunak.*

Aurten Maria'ren alaben Bazkunak Sorkunderako bederatzí-ufen ospetsu bat gertau izan dabe eta notintza aundia eldu da eleizkizunetara, bai goxetik Xemein'go elaxara eta baita iluntzian Mertzede'ko txadonera be. Jaia ospetasun geyago emoteko Batzokiko abesbatzak egun bitan abesti benetan edefak abestu dauz, eta guztiak poz-pezik entzun dautse. Beste egunetan Maria'ren alaba aldra batek oso txukun eta ederto abestu dabez Andra Maria'ren abesti politenak.

*Il-otoiak.*

Igaro dan astelenian izan dira pafokian «Bafoeta» basetxeko Paintzike Ueñaya etxekoandriaren gogo alde, il otoiak. Bilbo'ra osate ebakuntze' bat egiteko eruan eban eta bertan i da. Markiña'ra ekafi eban bere gorpua.

*Jalotzak.*

Urbieta Alberto eta bere emazte Malaxetxebafia'tar Ebenzia, Aspiltza ikastolako irakasleak, lenengo semetxua izan dabe.

Kareaga-Tofe basetxeko Benigno Urkidi'ren semetxu bat batiatu dabe eta iñaki euzkel izena ipini dautse.

Txaraka basetxeko Afoitajaregi'tar Luziano'ren emaztiak alabatu bat izan dau eta ugutzau dabenian Miren Edurne euzkel-izena ipiñi dautse. Zorionak guraso gustioi.

*Gal-ereiten.*

Aurten ainbeste euri egin dau uda goyenian eta basefitafak euren gal-ereketan atzeratu ibili dira; baña lengo astian iru edo lau egun on egin dabezcanian, nai beste lan eginda, gariok erein dabez.

*Nekazariak.*

Entzun dogunez emen inguruko basefitar askok laster Gipuzkoa'ko nekazarien antzera euren bazkuna eralduko dabe, eta bazkun ofen bidez euren buruak eta ondasunak biar dan lez jagoteko gertauko dira. Ori biar biafekua zan. Bestela basefitafai edonok bafe egiten dautse eta eura-kaz iñor be ezta gomutetan auteskunde sasoyan baño.

*Gurenda ospatuten.*

Igaroko igandian Markiña'ko emakume abertzaliak jai egin dabe Batzokian irabazitako gurendia ospatuteko. Gozua eta nai beste jan ebennian arek euken umoria eta dantzan egiteko gogua. Aspaldiko urte askotan dantzan egin eztaben askok be oletako ugefak kendu ei ebezan.

KURUA

**Beriatua.**

*Ezkontzak.*

Mutil zar geratu nai izan eztabenak onetxek izan dira: Aldazabal'dar Pedro, Balentziaga'tar Pedro, Eizagife'tar Jose Ignazio ta Elu'tar Efuñino. Aldazabal'dar Pedro ta Eizagife'tar Jose Ignazio Lekeiño'ra ta Lekeiño'kuekaz ezkondu dira. Balentziaga'tar Pedro ta Elu'tar Efuñino'k Abadiño'n eta Bolibar'en aurkitu dabez. Ez ete dabe, emen gei dagozanen batzuk, min apufen bat artuko, zeregin astun ofetan kanpora jo dozuelako?

*Gexorik.*

Egun batzuk ogeratuta igaro dituz Afiola'tar Mari andra atsegin eta serbitzale on-onak; ije osatute dauela jakitiak, asko postuten nau.

Elustondo'tar Jose Mari ta Afiola'tar Mari Jasepa guraso zintzuak be

**Eunak eta sofieko egifak**

**Zeara'tar Erupin**

Tenderia 15

Bilbao

**Eleiz - Jantzi ta urregintza**

**A. Rui-Wamba**

Eleizak jasteko biar dan gustia emen aurkituko dozue ona ta merke

Plaza Nueva, 10

Ufutzikiña 14.238

BILBAO

**GORUNTZ - GAYAK**

Eunak, bale-bizafak, zumitz ugaf-gaitzak

**Zubiri'tar Blingen**

Artekale, 50

BILBAO

**JANTZIAK**

gizonentzako Teadoron-ian egingotzue iñun beizen ondo eta lauko asko kendubarik.

**TOVALINA Y C.ª L. D.**

SOMERA TT BILBAO

Lenengo oñian sartukeria dendatik.

**EGILEOR'TAR JON G. TA SEMIAK**

AUTONOMIA-24<sup>gn</sup>. — ABANDO'n igali edo fruta ta basoko zugatzak. Landa, ta ortu - azijak. Zimaufak; kokuak ilteko gayak, eta abar. Landara-gatzak kentzeko irakaskizunak. Ortu ta barat-eredubak.

**Ñetako ta puntzoko gauzak**

Ugari, onak eta merke Euzkeraz itz egiten da

**BENGOA'TAR MATIAS**

Artekale, 1 eta 7

BILBO

**Eguñola Josia**

LEKEITIO'n eta BERMEO'n Urzelal-kalean 16<sup>gn</sup>.

Bilbo'ra deitu ezkeru, noz nai yoango da. Hotel Arana (Bidebafieta) edo «La Guipuzcoana» (Ledesma 6)

Oyalik onenak. Berebiziko artaziak

**Marin eta Goikolea**

(Ien Apellaniz y C.ª)

Santugintza; Altara, Pulpito, Konfesonario ta elelzetarako beste zul-lanak

Castilla, 31

VICORIA

estu-alditxu bat izan dabe, euren seme Kepatxu'ren gexua dala-ta. Ondo egon biar dau, ifi-pafe gozuak egiñen be asi jake-ta.

*Egualdija.*

Egualdi oso ilun eta euritsuak doguz aspaldijon. Igaro dan astian egin zituan iru edo lau egun onak eta «planto». Ezkefak eurei, gari-ereitiak bendatute samar daukiez etxerik geyenetan. Ondioik oso berandu be ezta-ta, egingo al difuz egunen batzuk onak, erein barik geratu diran zalek ereifeko.

*Eiza.*

Eiztari edo kaseruak be ba'dabe aurten iletie pranku; batari ifandu ta «ixebez», bestiari ta bardin, danak «ixebez». Ondafu'ko mariñelen «ixebeza» ondo sartu da Befitu'ko eiztarijen artien be. Olagor-iltzaliak Zabale; Juan Eizmendi, Egi-anayak, Pedro Kaminotxu, Jose kabó izan dirala entzun dot; besterik bada il dabena, parkatu deiztala il dabiezenen artian jafi-eza. Agur.

ALBIZTARI

**Jatabe.**

Emen be autzokunde egunak igaro ziran ezkeru gurendarik gurendara ibili gara abertzaliok, eta ori bide dogula geutafai, eta batez be emakume azkafai neure eskefik anaikof-enak, gure garaitza euran eskuetan dagolako, ta gañera eurak autarkija izan ba-eben lengo, gure abefi au azkatua ixango zan gaur.

Gurendarik ufengo igandean euzkotar azija luferatu eban, Irakaslearen XXX'gafen urteufena ospatu dabe, Bazkintza-Artezkarijak eratuta: goizeko zaspí-terdian jaupa ixila, il abestiakaz, ta otoi egiñaz Sabin'en alde, eta bertan ildako abertzale zafan ta gastien alde.

Afatsaldeko agurtza ostian egun aretan euzko-antzerkien bat ospatu dabelako zufu-muruba neure belafijetaratu jat, geure efiko neska-mutil argijak, neu geure basefi ontatik at nagoan ezkeru, bertako izpafak argitaldu barik edo ornidu barik geratuten dira ez jakiñagatik, berau tamala ixanik gaurko aldijan euzko efijetako izpafak ez argiteratutia geuria dogun izkuntzan; ofegatik efixik txikianian be izparkariak euki biar dabez, ontzat artuko dabelakoan, neure erefixi au basefi gustietan, neure efijan be euzkel-zale garan ezkeru, ta gañera jur-alde danak dauke Jaungoikoak emondako izkuntza, ta guk be geuria; mañe izan biar dogun ezkeru, uste dot beste basefi gustietan lez, gure efijan bere laster buruba agertuko dabela euzkel idazleen batek, bertako izpafatuak geure euzkel izpafingietara bialduaz, EKIN'era basefirik geyenetatik izpafak bialduten dabezcan irakufiko dozube bertan. Ez dakit orain zenbat EKIN sartuko diran geure efijan astero, baña len askotxu sartzen zirana bai, berau dogu ba basefitafentzat izpafingirik egokiena ta irakufi berau.

Urte onen amaya laster dogun ezkeru beragaz bat-batera, geure sukaldeko orman ezkegita egoan euzkel egutegia be ezerestuko da. Ipiñi datofen urtian be bardin euzkerazko egutegia (Jaungoiko-Zale'na polita da) gaur garian egunetan lotsagafija litzake geure sukaldietan erderazko egutegia eskegitea.

Mungian Gabilondo aiztaenian erosi zeuen euzkel egutegijak.

JATABETARA

Aspaldian ufundik zabiz, aizkridia. Ondo litzake bai, zu zeure basefitik at safi zabizen ezkeru, zeuk al dozuanian idaztari itxi barik, besteren batek ardura ori arteza Jatabe'n. Ia zeuk topetan badozu bat edo bat asteoro ezpada be, amabostian bein orko izpafak bialduko dauzana.

**Legendika (Kanala).**

*Itauna.*

Entzun bei! Jakin lei zegaitik aufferatu daben aurten garizumia?—Zer ba...? Garizuman gagoz ala?—Egunokaz Madril aldetik datozen izpafari begituta bayetz be esan geinke. —Ez dakit zer esan gure deustazun. —Ara: Orain artian beintzat, mafau osteko egunak garizumakoak izan dira, eta mafau egunak izan ziran lez... —¡Kantabria'k asto ganeko poztire irebazi dabelako dirautazu ori ala? —¡Ez! Auteskunde igandian jazo zana-gaitik bañol Orduan, dana zan: «Candidatura Católica vasca, Bloque de derechas, Candidatura antimarxista» eta olakuak. Ori olan zala-ta askok auterkija eurari emon eutsien. Orain bafiz bakalder utsak zirala jakin dogu. Auteskunde igandia, mafau igandla, izan zan ba, eta osteko egunak garizumakoak izan biar, kalendarijua aldatu ez ba-dabe. —Ofegaz ba-dakit zer agertu gura dauskuzun. —Zer?—Igandian, naya «tostada» jan zenduala. Ez da egija?

*Txapeldun..... nor?*

Iñoz ez lako burukaldi ikaragafija dabil aurten Legendika'ko emakumen

artian! Batak, bestiak baño txafi edefaguak azi dituez. Igaz eta igaz-lemian txapeldun ixan dana, aurten «groggy» itxi dabela ta pozik dagoz batzuk. Nor ixango ete da aurten txapeldun? Ori, aldijak erakutziko dau, baña nire ustez, Ugalde'ko Jone ixango da aurten nagusi. Zorionak.

*Bederatzí-uruna.*

Elizan egiten dan Sorkunde Garbijaren bederatzí-ufunera ez da notintza andirik eltzen, Antza daguanaz, Betania'ko Marta'ren antzera lagunak urduritsu ta artega dabiltz etxe-ko arazuetan. Baña Jaunak esan ebanez Mari'k arlorik onena aukeratu eban.

*Naskaldija.*

Tremoya'neko txafi iltia dala-ta, emen agurtu dogu, Bilbo'ko, Bigere'tar Miren Begoñe neskatile liraña be.

ELIZ-MENDI

**Amoroto.**

*Sabin'en gogo alde.*

Igaro zan astelenian ilaren 27'an izan zan efi ontako txadonan gure irakasle Arana-Goiri'tar Sabin G. B. gogo aldeko jaupa ta il-otoiketak. Igarotako urtietan baño notin geijago txadonaratu zan.

*Euzkel izena.*

Andar euzkel-izen begikuagaz ugutzau zan ilaren 30'an efi ontako Uri-Buru-Batzafeko lendakari dan Maruri'tar Danel eta bere emazte Kortabitarte'tar Lone'ren lenengo semetxoa. Ori da abertzale benetakoak dagoken eran jokaturtea. Zorion ugariak opa deutzuguz.

Sortzez garbiaren bederatzíur-ena.

Egumenian asi zan Ama sortzez garbiaren bederatzíur-fena, egunero ostetza aundia txadonaraturik batez be Miren alabak.

ITURETA

**Mañari.**

Eldu da ba nik idazteko eguna, ta bete gurarik, neure zeregiña asi naz idatzi laburtxu bat eiten, ia ordua izan da-ta. Ia ba ofako «El Liberal» deituten yakon satori kendu ta Euzkadi osoa emanaz ia goratzen dogun ba emen lengo auteskundian sosolistoak bizkor ibili dira efegua ugari ibili dabe ta baya ez dabe lortu.

Pentzetan izen dabe nagusi urtetia baya ez; ez uste izan mutilak ate eskitzetan efegua ugari ebali dozue baya... ¿Zuen efegu ta lan gustietatik amar autarki edo boto baño ez aldozuez izen?.. ¡A mutilak! bajutxo eskilara malok, ba ezeizue uste izan orain gorago igoterik eta ez gitziagorik be.

Bada kurutze deuna dogu geure goiburur ta beraren aurka egiterik, ez-bada berak erakutzi euskun bide zuzen eta, leyolari jafaitu baño ¿Zeinbat obeto ofek efeguok ein bazeuntsiezan gure goiburur danari? bai balitzok ofako birau edo blasfemia botaten. Bada zelako eskar ugariak jaritxiko geunkez beragandik. ¿Uste dozue berori oinperatutia ala zapaldu egitia? ¡A!.. ezabizie lelo txafak ¿ez dakizue ba bera oinperatu egiteko ez dauna iñor mundu ontan ala?

Ia ba abertzaliok itzartu lo zauzien tokiti eta,ekin gogor,ia «Liberal» zatitok kendu, ta EKIN emoten dun. Emen gara Mañariko abertzaliok idatzi safi-safi, neuk noz edo beiñ idatziko dot alajainkua, senafa be okefa det da.

*«Mañariko»ri.*

Neuk be atsakabe edo samintasun andi bat artun neban «Urkiolape»ri ein zeuntson destrañiegaitik. Ufengoan ez egiñ, danok gara abertzale zintzuak-eta. (1)

(1) «Mañariko»k ez eban destañez egingo da, baña atakotzat artu gura ezkeru... atxakia aurkitzen da.

## «Urkiolape»ri.

Zelako pozik nago Urkiolape, dantzan egiteko bada zuk diñozundik tanbolin soñuak ugari dirata, kirikixu- ok sasipe-sasipe ete-dabiz ba etxu- ra geju dau, bada «Azkatu arte»ri esan seuntson bestiak lanbolinian dantzan majo eñgo leukela ta ba asi ez doaket astirik dantzan eiteko-ta umiak negafez daukuaz da ufenguan eingot da aste artian gura neuke, zeugaz egon.

KUKU LORIA

## Josu'ren Bijotza'ren aintzaz.

Lenengo barikuban Josu'ren Bijotza'ren aintzaz, Jaunartziak eta otoitzak egin ziran. ¡Aintza Bijotz Deuna'ri!

## Sabin'en alde.

Igandian emeko elexan ospatu zan amafetako jaupa nagosija, Sabin irak- kasliaren eta enparau ildako abertzal- lien aldez eskiniya ixan zan.

Elizkixun ofetara, lagun asko erdu zan.

## Juan-etorik.

Emen egun batzuk igarota, bariku- ban juan zan Ondafoa'ra, Markue- rkiaga'tar Paul aberkida,

—Larunbata iluntzian etofi ziran Bermeo'tik, Gofi'tar Markelin, Zuga- tzagoitia'tar Bingen, Bernaola'tar Ef- apel eta Barazar'tar Kandida efi on- tako aberkide gastiak. Mutil oneik, Bermeo efi jan, argin lan edefak egi- ten inardu dabe.

## Obarantza eginda.

Arteaga'tar Salome emakume zin- tozaoren ama dan Uriarte'tar Kande- anderea, bere gexoan obarantza egi- da aurkitzen da. Poztuten gara, ta arin osatu.

## Tripakadia.

Igande afatsaldian, emeko karla- tafak, euren alderdira autarkija emon eben gixonari «merijendia» omon eu- tsoen. Ori zala ta, tripakadarik eta berbotsik ixan ei-zan... Olako ordub- an, dana ondo ta dana ederto...

Karlatafok, orain ei-diñue bafiz, ufengo auteskundietan, ertzak eta mertzak atarako dabiezala. Baliteke, baliteke... Bada-epadan be baña... merijenda baten gora-beran dagozan «soldau-koitaukaz» mendi galuferan- tza ez abijau gero...

## Lugiñak.

Garijak erefen diñardube; ta baña arto ondafak etxeratzen be. Artua, aurten, polito artu da, antza danez. Beintzat «ezaren» negafotzik eztogu entzuten urte batzuetan lez.

## Eguraldija.

Egunontan iluna, euritsuba ta otza. ¡«Abendu motza, au dok otza!» Aldi- jari jagokon esakun-au, safitan ent- tzun ixan dogu.

Negute ontan, edufa, ugeri be ugeri jausiko dala, diñue. Egija ete? Baliteke; baña neuk, astronomijari aspaldijon eztantzot «pede» andirik emoten.

Zeruko aingeru lirañak usuak lu- matu begijez ba...

MAÑARIKO

## Zeberio.

## Eguraldia.

Egun ilunak eta gustiz euritsuak dauzkagu aspaldi onetan. Igara dan astean ikusi genduzan inguruko men- diak eluf zapiaz estalduta. Bildur be- ar laister gure artean ez ote degun izango; bada-epada, gertu gaitezen.


## Eriotza.

Gaxotasun luze baten ondoren, Jaunak beraganatu dau Iza'tar Dome- ka 16 urteko mutil gazte zintzo zin- tzoa ta abertzale sutua.

Atsekabean laguntzen deusagu bere sendi naigabetzuari eta zuk, ira- kurle, otoitz bat eskeñi zaiozu goiko Jaunari bere gogo-alde.

## Gexorik

arkitzen da Aldekoa'tar Justo'ren ala-



## "PHILCO" RADIO

ON ARTEAN ONENA. MERKIENA.

AGIRI TA SANEURIAK ESKATU

CENTRO RADIO ELÉCTRICO

ALAMEDA DE RECALDE, 74

BILBAO

batxoa. Ainbat arñien osatuta ikustea opa deusagu.

## Juan-etorik.

Durango'n egotaldi luzaro bat iga- rotzeko asmoan arkitzen dirade emengo efitar diran Aldama alargun andererea bere alabeakaz.

## Amaya antzerkia.

Igaro dan igandean emendik ere izandu giñan Bilbon notin taldetxo bat. Donostiko abesbatzak aurkeztu eban «Amaya» antzerki edefa ikus- ten.

Gogoz entzun giñuzen Donosti'ko abesbatzako aldra edefari abots go- zoak. Zer esanik ez dago eusko-go- goak berbirtutzeko dirala onelako ikuskizun eder oyek. Aufera bada euskaldunak, maite dezagun gure Ama Euzkadi eta aspertu gabe egin daigun bere alde gure aldetik alde- guna.

IGERAIZ

## Abadiño.

## Jayotzak.

Loizate'tar Joakin eta Mintegi'tar Ermenegildak umetxu bat Juan Jose izenagaz ugutzau dabe.

Tirado'tar Jose ta Real de Asua'tar Leonziak beste bat Luis izena- gaz.

Mintegi'tar Eusebio ta Bereziar- tua'tar Luisak beste bat Jose Andres izenagaz. Zorionak.

## Gogo-inarkunak.

Iriarte'tar Roke Aba, Yosu lagu- nak, Mariaren alaba ta Eleiz Gazte- dikoai gogo inarkunak oso ederto emon dautsiez. Bafiro be, entzuteko gurariz gelditu ei dira.

## Eriotza.

Gaztelu Ufutiya'tar Esteban ta So- laguren'tar Marzelina'ri semetxu bat donokiratu yako.

Bastefetxea'tar Emilio ta Azpitar- te'tar Mariari beste bat. Atsekabean laguntzen dautsague.

## Ekandu gaiztoa.

Gabaz txaploak botatea ekandu oso gaiztoa da. Udan be noizipein loa galerazoten euzkuen. Aufeko igandean bafiz txaploak botaten gel- ditu barik ibili ziran.

Ori ganorabako ta kaltegarfuzko oi- turea da ta, agintariak debekau bear dabe. Eurak lo egin nai ez padabe, besteari bakean itxi dagioela. Ufen- goan gabaz txaplorik asmetan ba- dot asmau, Gobernadoreari esango dautsat, eta orduan Traña nor dan yakingo dozue.

## Ermenegildok

Diño, ofeik deretxen izena artuta botoa batzen ibili diranok, erlegi- ñoari ukutu barik, auxe esan bear ebela: Ara gu Españetarak gara, euzkaldunak baño lenago. Esatera- ko, Abadiñon edo sekretarioa, edo medikue, edo maisue edo abadea al- datze bat edo ilte bat balitz, guri Españetar edo efege zalioi bardin dausku ofein tokira etofi daiten; Du- rangon egin dabena antxiña ez dala, bertako semeak gozez egon afen kanpokoari emon. Eta bertan berta- ko semeentzat beafik naikoa egon ez afen be, kanpokoak eskubide bardi- ña euki dagiela. Euzkerea baño er- derea lenago; eta euzkerea ito daite-

la, kirolak eta oiturak be, Españar- enak lenago, bertakoak baño; eta era ofetan dana. Gu Madr'en efe- gea ipiñi ezkeru pozez eta atsegiñez beterik gagoz. Eta nazionalistak esan dagiela, medikuak bertako se- meak ba dagoz, bertakoak, Sekreta- rio, foral, abade, kobadore, maki- niste, maisu ta enpleo guztiak euz- kaldunak lenengo izateko. Bertako semeak, euzkaldunak anayak garean ezkeru, zeregin guztiak eurentzako izan daitezala. Euzkerea, erdere- a baño lenago, ezpata-dantza, gorulari aufezku, txistu ta tanboril, goren- go malan, geureak diralako. Guri efegea, nai efrepublikea Madrid'en euki bardin dausku, Euzkadi'ko efe- gea Gorbaiyeko ikazgiña izango da- ta. Oneik gauzok esan bakoitzak eta gero boto ezke yoa; eta ez gu- zur eta bafiketaz. Euzkadin, na- zionalistak izan ezik, emengo gauzen areyoak dira. Bestela esan ¿zer egin dabe euzkerea gaitik? zer egin dabe bertako oiturak gaitik? Ezebez eta ezebez.

## Euzkalduna bazara, entzun.

Euzkalduna, bertako gauzak baño beste batzuk maiteago dituana, euz- kaldun ona ez da. Kanpoko naya- go, etxekoa baño, ori gizon galduak egi- ten dabe. Euzkalduna beti, eta lenengo euzkalduna.

TRAÑA

## Lemona.

## Agur Arlaban.

Aspaldion ufinetatik izanazanafen ondo baño obeto bete dozu EKIN'ian nire utsa eta aldi luzetxoan emendik izango nazanafen zeuk idatzi biar dozula uste dot. Jafaitu ba «Arlaban» eta zeuretzat neure zorijon agufa.

## Ikusiak irakatsi.

Otuten zarie bein «Paulino Gome- z»en eretxia zein zan? Ba, etzan besterik Bizka'ko esneak monopoli- setia baño... Otuten zarie «Federa- ción de Ganaderos»goak egun baten zelan esan eben Udal-etzaufeko ze- layan «nai dogunian uriak gose-pera- tuko doguz». Emen ezto «Paulino Gomez»en eretxiari indafa emotia baño ikusi... Orduan al-ixan ba'leu Paulinotxo'k auxe egingo eban: Esne saloki ta saltzalak bere-bereak ipiñi, «Santander» edo nonbaiteko esne-ola bategaz artu-emon bideak safatu eta Euzko basefitafak Afausika itxi... Au ikusi-ta be, siñiztu leike basefian Afotzale bat legokela???

## Orain be olan?

Emendik ufindu nintzianian Afaño' ko ikastolak bai, Afaño'ko ikastolak ez, geratu ziran.

Efiratu nazanian be, auxe aurkitu dot; ikastolak zabaldu ez, ikastolak zabaldu bai, eta ori, entzun dodanez «Arkitetook» lan-bide edo obrak on- tzat emon dauzala. Noz-arte yafai- tuko ete dogu afantzaka? Norberen seme - alabatxoai lagunduteko be olan...? Igitoar bat ondo iminteko ixan ba'litz, oingo Afaño'ko zakelak zabaldu ziran.

## Bapo-bapo.

Jatabe-ganian karlatafak etxe bafi bat egin-gura dabela entzun dot. Zergaitik ete? Eztot eretxi onerako

ixango danik uste, ba'litzake norbai- ten kalte-bide asuan egotia.

Asegariak ulea itxi leike, baña ez nafue.

## Erdel ixena.

Ignacio ixenagaz, Juan Antonio Useola ta Isidora Etxebafian seme- txuba.

## Eskontza.

Semeriaren 30'gn. Urkiolan es- kondu ziran Juan Etxebafia ta Faus- ta Landajo.

## Bederatziufena.

Goxeko 7'tan Sorkunde Garbiyari bederatziufena egiten diñardue, Mi- ren Alabak eta Sorkunde egunian Jaunartze orokofa 8'ko mesan egi- ngo dabe. Afatsaldian, bederatziufe- naren azkena sermoyagaz.

¡Ila onen 3gn., Jaupia Sabin'en aldez.

Iñoz baño oste geyago. Abotz bi- tako R.vanelo'en Mesia abestu zan, eta azkenian Perosi'ren «Liberame». Gustije, Batzokiko Abesbatzak, gu- re Maximo txanezkandariyaren ma- kiapian ikasita.

AUZOKO

## Ibarange!u.

Geure txokotxu onetako zaindari eta abertzalian be zaindari dan An- der Deun eguna oso ondo eta poz andiagaz ospatu gendun, besperatik azita kanpa jote eta bolanderuakaz. Txadon bafua oso spaindurik, notin ugari, txonizlari bikañetarikua Lafa- ñaga'tar Eukeni, Eloffio'ko jaupari argia; euzkera garbi, abots edefa, ze argi eta adoretu ipiñi euskun An- der Deunaren Kurutze Deunaren- tzako mafasuna, irudi mamintsuak aberatsan eta txiruaren gure Kisto ren zaletasuna. Ia ba gurasuak entzun zenduana ez aztu eta beronen ikas- bidiak jafaitu ume-umetxutatik era- kutziagaz Kisto untzatu eta bera- ganako mafasuna beren gudari ixan daitezkan, lotsa barik eta pozik txiki eta anditan atseginu eta goraldun dayen.

Zorionak Lafañaga jaunari, eta berau ekartia gogoratu jakenari.

Efi onetan be jaupari argi, txoniz- lari bikaña badogu Oar-Arteta, jaun argia, kementsua, adoretua euzke- ra garbi eta sutua; efi gustiak mañe doguna. Ia ba ikusi erbestekuok eta esango dozue «uste izan dogun baño be geyago da.» Ni enoye emen ipin- ten bere alde geyago, enaz duin bera biardan lez edo (merendu) daun bestian goralduteko-ta; baña Goiko Jaunak egi- ten dituz izafak be batzuk dis, dis, argiaguak bestiak baño eta beraren guraria da argiak argi egin dayen batez be saso tamalgafi one- tan alan ba Jauna argitu gogo (arima- ko) begiak berak emon dautzun es- ker-edo grasiakaz.

## Edosein eri.

Aberkide mañe; igaro dan osteko izpafingian irakufi dabe emengo emakumiak zure idatzia Elantxobeko emakumak Sukafietara juan zirela -ta... emenguak ez; emengo emaku- miak batzafa euki eben, bafiro batzar aretan gitxi batu zirela ta ilara onen 3'an Euzkadin argitaldu eben zelan izango zan batzafa gafantzi andikua sala eta

danok etorteko; baña zure sendikua- k etziran etofi batzar au urte bete do- zue eta ondiño bein ez dira ikusi, ¿zer da ori?

NEU

Bialdu dozuzan itz neurtuak arira datoz, baña nik astirik ez gaur euskertzeko.

## Ondafoa.

## Lana geratu.

Kaia obetuten dagizean lanak gaur geratzeko dira, agindu bafira ar- te. Beraz an lana dagijen 100 baño langile geyagori, zartada edefa emon dautsoe.

## Udalekoak.

Egiguren'dar Pilipa ziñegotzijiari, alhondigako banakatza emonagaz la- ga euzan utsunak betetako zzenen- go udal batzafian onetxek autn zi- ran: Endore ordezeko, Aranzamendi' tar Simeon; ogasun batzorderako Ibaibafiaga'tar Sekunda eta jaufitza batzorderako Apraiz'tar Peli.

## Arantza.

Ezer ez da, luzaro etxian egon os- tian, igasiriko aste erdiñik itxasuan dabiltaf afantzaliak. Ontzi txikiak txitxafua ugari dakafe baña irabazi labufak dabez, merke baño eztalako saltzen.

Lufun - ontzizak bafiz, oindikafen bixigu gitxi atzitu dabe.

Bai ba; afastrea edo dana dalako afantza era ofetxek ondatzen ei-dau -ta. Ostera, gaitz ofen osakai bakafa araudija baño ezala, danak dakusen gauzia da.

## Igandeko batzara.

Bijar igandez Bilbao'n egingo dan erki batzafarako aldunak aukeratzeko, alderdikidien batzafa egin zan igaziriko igandian Euzko Batzokijan. Onela ixentau ziran: Aldun, Egigu- ren'dar Pilipa eta ordezeko Beristain' dar Bonipagi.

## Jayotzak.

Aulestiarte'tar Nikanor'en emastia dan Aranbafi'tar Jule'k seme bat argi- taratu dau, Pedro Manuel ixenagaz ugutzaurik.

Bardin Etxaburu'tar Jagoba'k eta Otxantezana'tar Josefa'k, Adrian ixega imiñirik.

ITURI ONDO

## Ereño.

Olerki batzuk gura neukez nik efi ontatik bialdu asalduteko aspaldi ontan zeozee jakula gertatu. Buruek aundi onak be biskor miñe efime zofostu, era ontako notiñak asko emen diraz ugaritu.

Auteskundiak izan ziran ilaren emeretzian eta poz pozik gu lotu giñan margariuek menpean; gorputza asko malotu jat da min dauskat oin aspian gertu nago oin ibiliteko Karlos'en saldi ganian.

Ereño dogu efi txiki bat kazikien menpekoa safi askotan ingi batzutan adierazitakua gizon aundin bat izan biar dau eurok deukien burua nai dabelako menperaturik jafi gure Jaungoikua.

Eskumatafak alde batetik eta eskefak bestetik, Euzkadi emen agertuten da ofen bioren erditik; gorantz goiaz Jaungoikuana ezeizu bildufik euki, ¡Gora Euzkadi! didar eingogu esker eskuman ganetik.

Ofek bestiok lotuko dira, gora barik, emen beian; a ze afoak ein bidituen diabruaren menpean; ikusirikan euek nor diran infernuko ispiñuan egin dituen gausa gustien ordaña izango dau an.